



## 2 PINTXO IBI BIDEA

### Viña del Mar eta Arkupe garaileak

Ostiralean egin zen IV. Pintxo Ibilbideko sari banaketa. Zortzi taberna aritu dira lehian aurtengo edizioan eta horien artean, Viña del Mar tabernak eskuratu du herritarren saria eta Arkupek aldiz, Martin Berasategiarena.



## 3 MERKATARITZA

### Gabonetarako gomendioak

Aterpea Merkatarik elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak 'Gabonak zurekin prestatzen ditugu!' jardunaldiak antolatu dituzte. Abenduaren 12 eta 16a artean Manuel Lekuona kultur etxean egingo dira saioak. Egunero merkatarik eta ostalari batek gomendioak eskainiko dituzte.

**Hurrengo TXINTXARRI-a abenduaren 12an argitaratuko dugu. Herriko informazio guztia txintxarri.eus atarian**



Armairutik irten direla irudikatzen, argazki erraldoia atera zuten Okendo plazan bildutako Ahobizi, Belarriprest eta herritar guztiek.

# 40 egun eta gero... armairutik at!

Atera gera! jaialdia egin zuten larunbatean, aurtengo erronka amaitzeko

Amaitu da 40 eguneko erronka. Larunbat eguerdiko ekitaldiak eman zion amaiera aurtengo erronka handiari. Belarri prest eta Ahobizi guztien bilgune izan zen Okendo plaza eta giro ezin hobean agurtu zuten guztiek batera erronka, euskararen egunean.

**A**rmairutik kanpo dira jada Lasarte-Oriako Ahobizi eta Belarriprest guztiak. Larunbat eguerdian egindako, Atera gera! ekitaldi ederrarekin amaitu zuten berrogei eguneko erronka ausarta.

Goizeko hamaika eta erdietan eman zioten hasiera ekitaldiari txalaparta doinuek. Ordurako, Ahobizi guztiak, erronkan parte hartzearen eta egindako lanaren aitortza gisa, diploma eta txapak

jasotzen ari ziren bitartean, plazako agertokira igo ziren txandaz-txanda. Horrela, sei txandatako testigantzak entzun eta dantza egin ostean, Pello Jauregiren balorazio positiboa ezagutu zuten bertan bildutakoek. Ondoren, Jalguneko kideei armairua oparitu eta argazki erraldoia atera zuten, armairutik atera direla irudikatuz. Ekitaldiarekin amaitzeko, zortzikoteak gidatuta, Safri Duo dantzatu zuten, denek elkarrekin.



Ekitaldiarekin amaitzeko, zortzikoteak gidatuta, Safri Duo dantzatu zuten.

**Irekiera berria!**

**GIZONEZKO ILEAPAINDEGIA**  
**Ana**  
 HITZORDUA HARTU! 943 841 972  
**PELUQUERIA DE CABALLEROS**

**20 urte baino gehiagoko esperientzia**

- ✓ Bizarra moztea eta kentzea
- ✓ Ilea moztea labanez, guraizez edo makinaz
- ✓ Higiena bermatua
- ✓ Hurrekin ere esperientzia

Behoko kale 4 (Andre Joakina-Enea ondoan), Lasarte-Oria

**GOIEGI**  
 Jatetxea - Restaurante

Santa Luzia dela eta, gau berezia antolatu dugu abenduaren 16an GOIEGIN.

Menu bereziaz gain, MUSIKAZ GIROTUTAKO AFALOSTEA izango dugu!

Anima zaitetz, GIROA ZIURTATUA dago!

www.goiegi.com  
 Irubide bailara 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 14 04 / 943 37 11 78

**SANTA LUZIAKO MENU BEREZIA:**

- Barazki lasagnatxo
- Odolki, aza eta pikilo pipar budina.
- ...
- Bakailaoa Pil-Pilean
- ...
- Entrekota plantxan patata eta pipar berdeekin
- ...
- Etxeko azkenburuko dastaketa izozkiarekin
- ...
- Kafea eta etxeko edariak

Eta gaua ondo bukatzeko, Goiegik gonbidatuta, Cava edo likore kopa bat.

## PINTXO IBILBIDEA



## Pintxo ibilbideko mokadu irabazleak

## Viña del Mar eta Arkupe tabernak garaile

Ostiral iluntzean eman zituzten jakitera IV. Pintxo Ibilbidean garaile izandako bi mokaduak. Bezeroei gehien gustatu zaien pintxoak, Viña del Mar tabernakoa izan da eta Arkupe tabernak jaso du aldiz, Martin Berasategui saria. Pintxo guztien maila altua nabarmendu zuen sukaldariak.

**Z**ortzi mokaduak izan dira 'oso maila altukoak'. Horrela adierazi zuen Martin Berasategui sukaldariak ostiralean, Udalean egindako ekitaldian.

IV. Pintxo Ibilbidea amaitu berri da eta ostiral

iluntzean ezagutu ziren ekimenean parte hartutako mokadu garaileak.

Viña del Mar tabernako presa iberikoa, ondo eta Pedro Ximenez saltsarekin mokaduak eskuratu zuen herritarren saria eta Arkupe tabernako isatsa ardo gorri

erara, patata eta perretxiko kremaz hornitutako pintxoak jaso zuen berriz, Martin Berasategui saria.

**Zortzietz oroigarria**

Sari banaketa ekitaldian, aurtengo ibilbideko pintxo guztien maila ona nabarmendu zuen Martin Berasateguik; oso harro agertu zen aurtengo mokaduekin. Horren aitortza gisa, sukaldariak sinatutako alkondara bana oparitu zien zortzi tabernetako kideei.

## HIESA

## Banku gorria gehitu dute Ganbon



Ganbo kaleko bankua gorritz margotu zuten abenduaren 1ean.

**H**iesaren kontrako nazioarteko eguna izan zen abenduaren 1a. Bat eginez, Ganbon banku bat margotu zen gorritz eta honetan parte hartu zuen Gehitu, Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Elkarteak Bea Gomez kideak izan ere, arrisku taldeen barruan dago kolektiboa.

Alkateak nabarmendu zuen HIESaren aurkako borrokan erre egon beharra, "urtero detektatzen diren kasuetan gora egin duen gaixotasuna da, haren garapena gelditzeko informazio gutxi dagoelako eta herritarrek neurri babesgarri

gutxi hartzen dituztelako". Iaz Lasarte-Oriako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Parisko deklarazioa onartu bazuen, aurten "Ganbo kalean eserlekua gorritz margotzearekin, Udalak oroigarri iraunkor bat sortzea bilatu du, herritarrek gogoan izan dezaten beharrezkoa dela HIESaren aurrean neurri babesgarriak hartzea". Aldi berean ohartarazi dute erakunde guztiek neurriak jarraitzen sentibilizazio-kanpainak egiten eta ikerketarako baliabideak sustatzea beharrezkoa dela.

## Emakumea protagonista hainbat ekintzetan

**G**enero indarkeriaren aurkako asteari amaiera emateko ostiralean 'La eterna juventud' lana aurkeztu zuten Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Umoretik, genero indarkeriaren aurkako kritika soziala taularatu zuen Makelur Antzerki Taldeak. Emakume talde baten eta gizon baten arteko egoerak taularatu zituzten antzezleak.

Ez zen hau aste honetan egin den ekintza bakarra izan. Asteartean, Iratxe Alvarez Indarkeria sexistaren aurkako plataformako kideak Iruñean eta batez ere, San Ferminetan jarrera eta eraso sexistak salatzen egin den



'Ozpinares sindromea' dokumentala ikusi ahal izan zen lehengo astean.

lanaz mintzatu zen; Gora Iruñea! eta plataformaren artean sortutako protokoloa eta herritarren kontzientzia sortzeko eman diren pausoak azaldu zituen.

**'Ozpinares sindromea'**

Bestalde, Baketikek eta Lasarte-Oriako elkarkidetzak taldeak sustatuta, 'Emakumeak eta bake prozesuak: Euskadi eta



'La eterna juventud' antzezlan eskaini zuten ostiralean. TXEMA VALLES


Guatemala' solasaldia egin zen astelehenean.

Aurretik, Guatemalak 60. eta 80. hamarkada artean bizitako sarraski militarri buruzko 'Ozpinares

sindromea' dokumentala ikusi ahal izan zuten. Honetan, emakumeek pairatutako indarkeria islatu eta gatazka argitze aldera duten papera azaltzen da.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

## Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

## Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

## txintxarri

## Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

## Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

## Informatikoa:

Xabier Amadoz

## GABONAK

## Gabonak elkarrekin prestatzen

'Gabonak zurekin prestatzen ditugu!' egitasmoa 12tik 16ra

Gabonetako festak gero eta gertuago daude. Horren harira, Lasarte-Oriako Udalak eta Aterpea herriko merkatarien elkarteak 'Gabonak zurekin prestatzen ditugu!' egitasmoa prestatu dute. Hurrengo astelehenetik ostiralera bitarte, ekintzaz jositako egitaraua osatu dute.



Aterpeko eta Udaleko ordezkariak jardunaldien aurkezpenan.

## TXINTXARRI

Herriarrek Gabonetako festak prestatzeko hainbat gako emateko ekimena prestatu du Lasarte-Oriako Udalak, Aterpea herriko merkatarien elkartearen kolaborazioarekin: 'Gabonak zurekin prestatzen ditugu!' du izena. Hilaren 12tik 16ra bitartean, herriko hainbat establezimenduk emango dituzte iristear diren egun horien prestaketarako. Kultur etxean izango dira saioak 19:00etatik 21:00etara.

Aritza mertzeria eta Yolanda tabernaren txanda izango da 12an. 'Zure jantziak gabonetarako moldatu' eta 'gabo-

netako lehen platera' saioak egingo dituzte, hurrenez hurren. 13an berriz, Ormazabal loradendak herritarrei erakutsiko die gabonetako mahaia nola prestatu; Arkupe tabernak, berriz, gabonetako otorduetako lehen plater baten proposamena egingo du. 14an, Maiane lurrindegiak makillaje erakustaldia egingo du, eta Lasarte tabernak Gabonetako lehen plateraren proposamena. 15ean, Kattagorri jolas-dendak adin bakoitzerako jostailu egokiak hautatzeko jarraibideak emango ditu, eta Goiegi jateak gabonetako lehen plater bat egitearena. Eta, azkenik, 16an, Alba modak desfile bat

egingo du, eta Buenetxea kafetegiak Gabonetako lehen plater baten proposamena.

## Gabonetako argiteria, 7an

Jesus Zaballos alkateak ostiraleko agerraldia baliatu zuen aurreratzeko asteazken honetan piztuko direla Gabonetako argiak herrian.

Bestalde, Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak gogorarazi zuen abenduaren 30ean gabonetako saski bat zozketatuko dela elkarte horretako kide diren 29 establezimendutan. Horrez gain, abenduaren 9an hasita, komertzioetako erakuslehoi Gabonetako kutsua ematen hasiko direla aurreratu zuen.

## Herriko artisten datu basea


Jesus Zaballos alkateak, Gazteria eta Jailetako zinegotzi Txus Alonsok eta departamentuko teknikariek herriko artisten datu basea sortzeko udal erregistro berria aurkeztu zuten Gaztelekuan.

Alkateak adierazi zuen erregistroa zabalik egongo dela alor hauetan lan egiten duten artistentzat: musika, literatura, margoa, konposizioa, zinema, malabarismoa, abestia, dantza, bertsolaritza eta beste edozein diziplina artistiko. Lasarte-Oriak kultura alorrean duen aberastasuna azpimarratu zuen, pertsonen zein taldeei dagokienez.

## Erabiltzeko

Udalak artisten eta sortzaileen datu-base bat izan nahi du etorkizunean antolatzen dituen kultura eta jai arloko jarduerari begira erabiltzeko.

Bere aldetik, artistei informazioa bidaliko die udalak departamentuetatik



Gaztelekuan egin zuten udal ordezkariak ekimenaren aurkezpena.

sortzen diren lehiaketen, lokal-uzteen edota proposamenen inguruan jakinaren gainean egon daitezten.

7.500 kartulina buzoneatuko dira herriko artistak beren datuak ematera animatu daitezten.

## On line izena eman

Erregistroan alta eman nahi duten pertsonen edo taldeen

[www.lasarteoriasarean.eu/artistak](http://www.lasarteoriasarean.eu/artistak) webean sartu eta haien izena, harremanetarako datuak eta aritzen diren diziplina zehaztuta utzi beharko dute, baita beren weberrak lotura, baldin badute.

Manuel Lekuona kutur Etxean edo Gaztelekuan fitxa bat betez ere egin dezakete interesa dutenek aipatutako tramitea.

## SAN TOMAS

## Postua jartzeko eskaerak

San Tomas arratsaldean azoka egongo da Okendon. Honetan Ttakunek jartzen duen talo postu eta txerriaz gain, azken urteetan herriko hainbat elkarte edo norbanakoek txistorra, salda, tortila edo gozokiak saltzen dituzte haien ekimenetarako dirua biltzeko.

Azokan parte hartu nahi dutenek, abenduaren 12a baino lehen egin behar dute eskaera. Bi baldintza bete behar dira batetik eguneko giroan txertatzea, hau da, baserriarrez jantzia joan eta postua apaintzea eta bestetik, harrera euskaraz egitea.

Postua eskatu nahi dutenek [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)-era mezua bidali behar dute.

## GABONETAKO HAUR PARKEA

## Taberna eta sarreraren kudeaketa

Udalak aukera eskaintzen die herriko irabazi-asmorik gabeko talde eta elkartei abenduan Mitxelingo frontoian antolatu ohi den Gabonetako Haur Parkeko taberna eta sarrera salmenta kudeatzeko aukera.

"Taldea hauek herriarentzat burutzen duten lana baloratuaz eta kontutan hartuaz, helburua diru sarrera estra bat eskaintzea da, haien lana errazteko". Hautatutako elkartearen ardura izango da GHP-ko sarreraren kontrola, eta baita tabernaren kudeaketa ere. Sarrerak, Gazteria, Festak eta Kirolak sailetik emango dira zuzenean saltzeko (helduei, euro baten truke). Tabernaren hornidura eta ustiaketa osoa, berriz, taldearen ardura izango da; irabaziak, osotasunean, taldeak jasoko ditu.

9 eguneko lana da bertan burutu beharrekoa. Interesa duten taldeek, beraz, giza baliabide nahikoa duela justifikatu beharko dute aurrez.

Interesa dutenek abenduaren 12a baino lehen erantzun beharko dute Udaletxeko erregistroan haien eskaria sartuta. Proiektuek oniritzia jaso ostean, talde guztien zerrenda bat burutuko da, eta 2016. urteko Gabonetako Haur Parkearen gai honen kudeaketa nork burutuko duen erabakitzeko, zozketa bat egingo da. Udalak zehaztu duenez, zerrenda ondorengo urteetan ere kontutan hartuko da, urtero organismo edo talde ezberdin bati (ordenaren arabera) eskainiko zaiolarik Gabonetako Haur Parkearen kudeaketa.

## BIYAK BAT

## Jarrera aldaketak demontzian

Lahar fundazioak ikastaroa antolatu du Biyak Baten abenduaren 12, 13 eta 14an. 'Jarrera aldaketan kudeaketa demontzia egoeratan' da ikastaroaren izena eta Ana Fernandez psikologoak eskainiko du. 20 lagunentzako lekua dago eta aurrez izena eman behar da horregatik [formakuntza@laharelkargoa.org](mailto:formakuntza@laharelkargoa.org) helbidean edo 663 057 223 zenbakian. Ikastaroa doan da.

## HITZARMENA

## Iberdrolarekin akordioa

Hitzarmena sinatu zuten Jesus Zaballosek eta Iberdrolako Euskadiko Ordezkaritza Komertzial Juan Aurrecocheak. Horren bidez adostu zuten, ekonomikoki egoera ahulean dauden pertsonen faktura ordaindu ez badute ere, argindarraren eta gasaren hornidura etetea saihesteko beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak ezartzea.



Zaballosek iragarri zuenez, laguntza-ildo bat onartuko da aurki ahultasun egoeran dauden pertsonentzat, gasa eta argindarra hornitzen duten enprekin adostu ondoren.

Une honetan, udalak faktura elektrikoari aurre egiteko arazoak dituzten eta Iberdrolako bezeroak diren 47 familiarekin jada lan egiten du.

Ezarrirako baldintzak bete beharko dituzte pertsona hauek Udalak ematen dituen laguntza sozialen onuradun izateko. Laguntza horiek zorraren zati bat edo zor osoa ordaintzeko erabili ahal izango dira. Udalak laguntza jasotzaile posiblearen egoeraren berri eman orduko, Iberdrolak konpromisoa hartzen du epe bat ezarriko duela non ez baita hornidura etengo, eta aurretik etena badago, berriro hornitzeari ekingo zaio baldin eta Udalak laguntza sozial baten aukera tramitatzen badu.



# Erronka amaitu da



Ostiralean, Ahobizien azken txandak eman zion amaiera 40 eguneko erronkari. Ohi bezala Sasoeta-Zumaburuko ikastetxean bildu ziren seigarren txandako Ahobiziak. Saioareen hasieran egindako dinamikaren ostean, Peio Jauregi EHuko irakasle eta ikerlariak, eskertza hitzak eskaini zizkien azken txandako kideei eta azken saioari amaiera emateko, Lierni Rekondok bertsoak abestu zizkieten bertan bildutakoei.

Urriaren 23an, 40 orduko euskararen maratonia amaitzearekin batera eman zitzaion hasiera 40 eguneko erronkari. Sei asteetan zehar atzera begirada bat eginaz, astero-astero, 100 Ahobizi inguru elkartu dira Sasoeta-Zumaburuko ikastetxean; 500 Ahobizik baino gehiagok hartu dute parte ostiraleko hitzorduetan. Horietan, zortzikoteko kideak aritu dira Ahobizien esperientziak bildu eta animoak ematen. Baina horiekin batera, herritarrek aritzearekin batera, saioei erritmoa jartzeaz arduratu diren zenbait talde ere aritu dira. Giro ederra izan da asteroko txanda aldaketetan.



Pello Jauregi ikerlariak, zenbait datu ezagutarazi zituen larunbateko ekitaldian.



## Parte hartze bikaina Erronkaren balorazio 'oso ona' egin zuen Pello Jauregik

TXINTXARRI

**O**rain da momentua parte-hartzeari begirada bat bota eta azterketa sakona egiteko. Horrela egingo dute datozen egunetan Pello Jauregik eta erronka ikertzen ari den lan taldeak. Larunbateko ekitaldian aurreratu zuenez, erronka 'mundiala' izan da; guztira, 1927 Belarriprest eta

957 Ahobizi bildu dira. Hori horrela izanik, parte-hartzea 'ikaragarria' izan dela azaldu zuen Jauregik. Ahobizi horietatik, ia 500 lagunek parte hartu dute aktiboki sei asteetan zehar eta horien guztien datuak eta testigantzak gainbegiratuta, honako datua eman zuen ikerlariak; erronkari heldu aurretik, hamar lagunetatik bost aritu ziren euskaraz eta



erronkaren ostean berriz, hamarretik zazpihurtu zuten euskara hutsean harremantzea. Gauzak horrela, denbora tarte laburrean emandak gorakada agerian utzi zuen Pello Jauregik. Datozen egunetan jakingo dira emaitzak.



Ez zen falta izan palmondoari aldarri egiteko tarterik ere.



Ekitaldian zehar, Belarriprest eta Ahobiziak igo ziren plazako oholtzara.

## TABERNA KEBAB

- Terraza zerbitzua
- Karta zabala
- Eramateko zerbitzua

Doan: Lasarte-Oria, Usurbil, Añorga, Zubieta eta Errekalde

\*Gutxieneko eskaera 10€

<p><b>DURÜM menua</b></p> <p>Txahala edo oilasko + patatak + freskagarria</p> <p><b>6,50 €</b></p>	<p><b>KEBAB menua</b></p> <p>Txahala edo oilasko + patatak + freskagarria</p> <p><b>6,00 €</b></p>	<p><b>Oilasko frijituua</b></p> <p>+ patatak + freskagarria</p> <p><b>7,00 €</b></p>
<p><b>Oilasko errea</b></p> <p>+ patatak + entsalada</p> <p><b>10,00 €</b></p>	<p><b>Hamburgesa menua</b></p> <p>+ patatak + freskagarria</p> <p><b>6,00 €</b></p>	<p><b>Hamburgesa 4,00 €</b></p>
<p><b>Lahmacun menua</b></p> <p>Txahala edo oilasko + patatak + freskagarria</p> <p><b>7,50 €</b></p>		

Hitz egiguzu euskaraz!

Sagardotegi, 1 • LASARTE-ORIA • 943 369 533 / 632 483 161

# Gabonak iragarritz

## Gabon kanten errezitaldia egin zen larunbatean, kultur etxean

**Gipuzkoako Etxe Erregionalen Federazioak antolatuta, gabonetako abestien jaialdia egin zuten larunbat eguerdian, kultur etxean. Parte hartutako abesbatzen artean, herriko Semblante Rocierak eta Alboka Abesbatzak eskaini zuten emanaldia.**

**A**te joka diren gabonak iragarri asmoz, gabon kanten jaialdia egin zen larunbatean.

Gipuzkoako etxe erregionalen federazioak antolatuta, zenbait talde aritu ziren kultur etxearekin.

Askotariko doinu eta estiloetako gabon kanten errezitaldia egin zuten ahal izan zirenen, 'Virgen de Guadalupe' koroaren eskutik. Hauen ostean, herriko bi taldeen parte hartzea izan zen; 'Alboka' abesbatza igo zen lehenik oholtzara eta 'Semblante Rociera' bigarrenik. Hauei pasoa eman aurretik, oroigarriak banatu zituzten. Abesti guztien artean, izan ziren euskarazkoak ere.

hirugarrena. Jaialdiari jarraipena emateko, Donostiako Galizia etxe 'Xistral' abesbatzak hiru gabon kanta abestu eta berriro ere, Extremadurako doinuak entzun ahal izan ziren, 'Virgen de Guadalupe' koroaren eskutik. Hauen ostean, herriko bi taldeen parte hartzea izan zen; 'Alboka' abesbatza igo zen lehenik oholtzara eta 'Semblante Rociera' bigarrenik. Hauei pasoa eman aurretik, oroigarriak banatu zituzten. Abesti guztien artean, izan ziren euskarazkoak ere.



Jaialdia amaitu aurretik, oroigarri bana jaso zuten Semblante Andaluzeko, Casa Extremeñako eta Udaleko ordezkariak.

# Gazteak lehen puntadak ematen

**T**takun kultur elkarteak gazteei zuzendutako jostuntza ikastaroa du martxan. Modu praktikoa, oinarriko ezagutzak eta makina nola erabili ikasten ari da gaztetxo talde bat. Estutxeak egin dituzte eta Gabonetako zuhaitzean jartzeko galtzerdietan ari dira lanean.

Gazte Klubeko 8 lagunek jostuntzan bere lehen pausoak eman dituzte. Gazte Klubak antolatutako ikastaroari esker.

Azaroaren 7tik astelehenero bildu eta lone Artola jostunaren eta Noelia Bermejo begiralearen laguntzaz, jostuntzako oinarriko hainbat ezagutza eta josteko makina nola erabili ikasi dute.

Horretarako bi lan eraman dituzte aurrera.

Lehenik estutxe bat egin dute. Antolatzaileek azaldu digutenez, telak eta apaingarriak gaztetxoek aukeratu dituzte eta loneren azalpenari jarraituz ikastolara eraman edo

etxean erabiltzeko estutxe ederra egin dute. Batzuk haien izena ere bordatu diotela azpimarratu dute.

Ikastaroa amaitu arte, abenduaren 12a, Gabonetako zuhaitzak apaintzeko galtzerdiak egiten ari dira.

Antolatzaileak eta irakaslea pozik daude gaztetxoek egindako lanarekin. Gazteak ere primeran ari dira gozaten tela, hari eta guraize artean eta ikastaroa luzatzeko eskaera ere egin dute.



Ederki egin dute lan gaztetxoek eta estutxe batzuk josi dituzte,

## Ekonomia *Suspertzeko* Plana

*Gure lurraldeko ekonomia, enplegua eta ongizatea indartzeko.*

200M€  
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

gipuzkoa.eus/ekonomia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

## HERRI KIROLAK.-

## Urtzi Telleriak 45 altxaldi eginda ezin apostua irabazi

Jose txo Urrutiaren aurka jokatu zuen norgehiagoka, larunbatean, Asteasuko frontoian

**Harri jasotzaileen arteko apustua izan zen larunbatean, Asteasuko Usarrabi frontoian. Bertan aritu zen Urtzi Telleria Lasarte-Oriatarra Jose txo Urrutia nafarraren aurkako norgehiagokan. Kirolari bakoitzak, bere pisu propioaren bikoitza pisatzen zuen harria altxatu behar izan zuen, sei minutuko hiru txandatan. Horrela, leitzarrak 11 jasoaldi gehiago eginda, garaipena nafarrak erdietsi zuen.**

## TXINTXARRI

**H**arri jasotzaileen arteko apustua izan zen larunbat arratsaldean, Asteasun. Urtzi Telleria Lasarte-Oriatarren eta Jose txo Urrutia Leitzarraren arteko norgehiagoka izan zen Usarrabi frontoian.

Harri-jasotzaile bakoitzak, bere pisuaren bikotza pisatzen zuen harria jaso behar izan zuen, sei minutuko hiru txandatan. Gauzak horrela, 156 kiloko harriarekin jokatu zuen herritarrak, eta 142 kilokoarekin berriz, nafarrak.

Apustuari ekiteko prest, 'lasai', 'sentsazio onekin' iritsi zen Urtzi Telleria Asteasuko frontoira.

Proba hasi eta lehenengo txandan ordea, aurre hartu zuen Jose txo Urrutia; tarte

horretan, hoge jasoaldi egitea lortu zuen leitzakoak eta 15 altxaldi aldiz Lasarte-Oriarrak.

Bigarren sei minutuan, indarrak bildu eta beste hamabost altxaldi egin zituen Telleriak, eta probaren hirugarren zatian ere beste hamabost altxaldi eginda amaitu zuen apustua Lasarte-Oriarrak. Guztira, 45 altxaldi egin ahal izan zituen Urtzi Telleriak eta 56 jasoaldi Urrutiak.

Apustua galdu arren, etxean jarritako meta betetzea lortu zuen Telleriak; sei minutuko tarte bakoitzean hamabost jasoaldi egitea.

Probarako gogor lan egin du herritarrak. Hasieran zailtasun batzuk izan bazituen ere, azken entrenamenduak 'oso onak' eginda joan zen apustura. Kirolari bakoitzak 3000 euro jokatu zituen.



Apustua amaitzerako, 45 altxaldi egitea lortu zuen Urtzi Telleria harri-jasotzaileak. TOLOSALDEAKO ATARIA

## 38 urte eta gero, berriro

la lau hamarkada igaro dira harri-jasotzaile gipuzkoar eta nafar batek apustu bat azkenez jokatu zutenetik. Orduko hartan Agustin Ostolaza eta Iñaki Perurena aritu ziren aurrez aurre. 400.000 pezeta jokatu zituzten, eta Ostolaza nagusitu zen. Tolosako zezen plazan aritu ziren biak, 1978. urtean. Larunbateko apustua Tolosan egitea aztertu arren, azkenean Asteasuko pilotalekua hautatu zuten.



Jende ugari bildu zen Asteasun, larunbateko proban. TOLOSALDEAKO ATARIA

## ESKUBALOIA.-

## Nely Carla Alberto, Europako txapelketan

**N**ely Carla Alberto herritarra Europako Eskubaloi Txapelketan parte hartzeko deitua izan da. Jorge Dueñas Espainiako selekzioko hautatzaileak iragan asteko astelehenean eman zuen hamasei jokalariko zerrenda definitiboa, eta herritarra deituta artean dago.

Lau euskal jokalarik osatzen dute deialdia: Ainhoa Fernandez bizkaitarrak, Nerea Pena eta Naiara Egozkue nafarrek eta Nely Carlak berak. Herritarra da ordezkaririk gipuzkoar bakarra.

Iaz Brest Bretagne taldearekin sekulako denboraldia egin zuen Nely Carlak: bigarren mailatik lehenengora igo eta Frantziako Kopa irabazi zuen. Udaran, Rioko Olinpiar Jokoetan jokatzeko deitua izan zen, baina Frantziaren aurkako final laurdenetako norgehiagoka erabakigarria ezin izan zuen



Europako eskubaloi txapelketa ari da jokatzeko Nely Carla Alberto.

jokatu, lesio bat tarteko. Aurten Chambray Touraine taldeak fitxatu du.

## Lehen partida, gaur

Lerrock idazterakoan, Estokolmon (Suedia) ospatzen ari den Europako txapelketan debutatzen ari da Nely Carla Alberto, Suediaren kontra, hain justu.

Bihar Serbiaren kontra ariko dira, 18:30ean. Lehen multzoa ixteko hirugarren eta azken neurketa Esloveniaren kontra jokatuko dute, ostegunean, 18:30etik aurrera.

Duela bi urte zilarrezko domina kolkoratu zuen Jorge Dueñasek zuzendutako taldeak, Kroazia eta Hungarian.

## IGERIKETA.-

## Buruntzaldea IKTko alebinek ligako 3. jardunaldia jokatu zuten herriko igerilekuan

Etxean aritu ziren Buruntzaldea IKTko igerilariak larunbatean. Alebinen ligako 3. jardunaldia jokatu zuten gaztetxoek, eta ederki aritu ziren guraso eta lagunen aurrean. Emaitzak baino, entrenamenduz entrenamendu eta lehiak lehia emandako aurre-erapausoak dira garrantzitsuak, eta taldeko neska-mutilak primeran ari dira norabide horretan.

Igerilari infantil, junior eta absolutuek berriz, Tolosako Usabal kiroldegian izan zuten hitzordua. Neguko Ligako 3. jardunaldia jokatu zuten bertan.

Astebete lehenago, Gipuzkoako Kluben Kopa jokatu zuten kategoria horietako igerilariak Ordizian, emaitza paregabeak erdietsiz: infantil neskek txapelkunorde izan ziren erreleboetan adibidez, eta taldekideek 25 marka pertsonal erdietsi zituzten.



Alebinen ligako 3. jardunaldia jokatu zuten. BURUNTZALDEA IKT

## Agenda

Igandea 11, 17:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxean



### Onik ateratzeko egin beharrekoak

Haurren zinema saioan, 'Ozzy' animaziozko filma izango da ikusgai. Erregeen pare bizi den beagle arrazako txakur maitagarri eta baketsua da Ozzy. Familia Japoniara doa eta, ondorioz, txakurrentzako Blue Creek bainuetxean utziko du. Bainuetxea kartzela modukoa da. Kale txakurrez gainezka dago eta bertan indartsuenak agintzen du. Bizirauteko Ozzy bere lagun berrien laguntza izango du: Chester, Fronky eta Doc. Euskaraz. Sarrera, 3,80 euro.

### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 14, 18:00etan

KontuKantoiko kideek 6-8 urteko haurrei zuzendutako ipuin saioa eskainiko dute.



### Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Ostirala 16, 19:30ean

Francisco Escudero kontserbatorioko abesbatza eta gitarren emanaldia, Danok Kide elkarteak antolatutako Musika Topaketen barruan.

## Lasarte-Oria

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 10, 17:00etan eta 19:30ean

'Sully' filmaren saio bikoitza eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 11, 19:30ean

Helduen zinema saioan, 'Sully' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



Ostirala 16, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zineforumean 'Snowden' filma aztertuko da. Jatorrizko bertsoia azpitituluekin. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 18, 22:00etan

Haurren zinema saioan, Disneyren animaziozko film berria 'Vaiana' izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.



Igandea 18, 19:30ean

Helduen zinema saioan, 'La Llegada'

filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



### Gabonak zurekin prestatzen ditugu

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 12- ostirala 16, 19:00etan

Aterpeak antolatuta, 'Gabonak zurekin prestatzen ditugu' jardunaldiak antolatu dira hainbat gomendio emateko.

Igandea 18, 12:30ean

Alboka Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko du.

### Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 17, egun osoa

Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan, Cielo Raso konpainiak 'Tormenta' lana eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

### II. Kalera Fest

LASARTE-ORIA

Larunbata 17, egun osoa

Esna Hadi, hainbat eragile eta ostalariek antolatuta, haurrentzako jokoak, antzerkiak eta kontzertuak izango dira.

## Herritarren txokoa

### Eskutitza

Lasarte-Oriako Udalak aurten ere ez du kontuan izan birziklatzea zabor-tasetan

Lasarte-Oriako Udalak 2017ko ordenantza fiskalak onartu berri ditu eta, hartutako erabakiak ikusita, garbi dago aurten ere uko egin diola zabor-tasen bidez birziklatzea sustatzeari. Honi eta beste hainbat konturi heltzeko "mahai bat" eratuko zuela agindu zuen iaz alkateak, baina konpromisoa ez du bete eta berriro ere tarifa finkoaren alde egin du. Tarifa finkoa, antiekologikoa izateaz gain, sozialki injustua da, arduraz jokatzeko duten birziklatzaileak zigortzen dituelako, eta axolagabeak, berriz, saritu.

Iaz, Lasarte-Oriako Udalak, PSEren eta EAJren ekimenez, bertan behera utzi zuen auzokonpostatze-programan parte hartzen duten familiek zabor-tasan zuten %20ko hobari edo deskontua. Hau da, bertan behera utzi zuen azken urteotan zabor-tasen bidez birziklatzea sustatzeko hartutako neurri bakarra. Alkateak iradoki zuen deskontua pribilegiotzat ere har litekeela, lasarteoriatar guztiek birziklatzeko aukera bera ez dutelako.

Edonondik begiratu ere, argudio zentzugabea da, baina are zentzugabeagoa kontuan izanda Lasarte-Oria dela 5. edukiontzi ziztrin bat bera ere ez duen Gipuzkoako herri bakarra, eta horren erantzulea alkatea bera dela, 5. edukiontzia ezarriko zuela aspaldi agindu zuen arren, konpromisoa bete ez duelako. Baina, tira, auzokonpostatzaileentzako deskontua kendu, kendu egin zuen, eta erabakiaren gogorra leuntzeko edo, 2016an birziklatzearen aldeko hobariak eta zabor-tasaren inguruko beste hainbat kontu argitzeko "mahai bat" eratuko zuela agindu zuen.

Urtebete pasatu da eta ez dugu mahai haren berririk izan. Nolanahi ere, mahaiarekin edo mahairik gabe, 5. edukiontzia ezartzea askoz gehiago ere atzeratu ezin dela kontuan izanik, oso une aproposa zen erabiltzaileei zabor-tasan deskontu bat egiteko. Pizgarri polita izan zitekeen herritarren artean egin beharko den kanpaina indartzeko. Baina ez da

horrela izan eta gobernu-taldeak berriz ere tarifa finkoaren alde egin du. Tarifa finkoa, antiekologikoa izateaz gain, guztiz bidegabea da. Zenbat eta zabor gutxiago gaika bildu, orduan eta tratamendu garestiagoak behar dira. Tarifa finkoaren bidez, arduraz jokatzeko dutenak, esfortzu handiagoa egiteaz gain, beren diruarekin finantzatzeko ari dira batere birziklatzen ez dutenen axolagabekeria. Beraz, Udala, tarifa finkoaren bidez, axolagabeak saritzen eta birziklatzaileak zigortzen ari da, nabarmen zigortzen, gainera. Hau ez da gure burutazio bat. PIGRUGek ere, erraustegia aurreikusten duen planak berak, alegia, honela dio: "Hondakinak sortzea zigortuko duten tasa aldakor eta mailakatuak ezarriko dira".

Beraz, garbi dago: gobernu-taldeak aurten ere ez du kontuan izan birziklatzea zabor-tasan; baina zenbat garestitu du tasa hori? %4. Eta hori asko edo gutxi da? KPI 1,3koa dela kontuan izanik, asko da, dudarik

gabe. Hala ere, zerbitzu osasungarri edota ekologikoa bat ezartzeko balitz, igoera onargarria izan liteke, edo ulergarriagoa, behintzat. Baina igoera erraustegia oinarri duen sistema bat finantzatzera bideratuta dago, hau da, osasun aldetik arriskutsua izateaz gain, garesti baino garestiagoa den sistema bat finantzatzera. Eta honek hasi baino ez du egin, erraustegia egiten bada, osasunean ez ezik dirutan ere garestitxo ordainduko baitugu.

EGUZKI



Emanaldi koloretsu bezain alai eskaini zuten Jalguneko kideek. Askotariko abestia ezagunak abestu eta dantzatu zituzten.

## 10eko jaialdia 25ak ospatzeko Urteurreneko jaialdia egin zuen Jalgunek

Mende laurdeneko ospakizun jaialdia egin zuen Jalgunek larunbatean. 1991. urtean eman zituen lehen pausak eta orduaz geroztik, askotariko esperientziak bildu eta ezagututa, ibilbide luzea egin dute gaur egunera arte. Hori ospatu asmoz, jaialdi ederra egin zuten, Manuel Lekuona Kultur Etxean.

### TXINTXARRI

**H**amarreko jaialdia eginaz ospatu zuen Jalgunek hogeita bosgarren urteurrena, larunbatean.

Arratsaldeko seietan, udal musika eskolako trikitilariak, Manuel Lekuona inguruak girotu eta jaialdiari hasiera

eman zioten. Ordu erdi beranduago, kultur etxeko aretoa jendez lepo bete eta ikuskizunari ekin zioten.

Bi orduko emanaldi koloretsu eta alai eskaini zuten Jalguneko lagunek. Mozorroak soinean zituztela, askotariko musika doinuak dantzatu eta abestu zizkieten ikus-entzuleei eta giro

ederrean, txalo zaparrada bero batekin eskertu zuen ikus-entzuleak emanaldian jasotakoa.

### Taldeen parte-hartzea

Herriko talde ezberdinen parte-hartzea izan zen Jalguneraren emanaldian. Besteak beste, 'Semblante Rociera' abesbatzak, beraientzat egindako abesti bat abestu zuen, Jalguneko lagunek dantzatzen zuten bitartean. Hauekin batera, 9. Euskararen Maratoiko kideekin batera, 'Ahoa bizi, belarria prest' abestia ere dantzatu zuten.



Semblante Rociera abesbatzak Jalguneri egindako abestia entzun ahal izan zen.



Euskararen Maratoiko kideak, emanaldian parte hartu zuten, protagonistekin batera.



Lan berriaren aurkezpen emanaldia

**Pirritx, Porrotx eta Mari Motots**

**ARGIAren alde**

## OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 11, IGANDEA

Saio bakarra: 11:30ean

Sarrerak: Aurretik 7 euro. Egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Eskuratu zure sarrera: ☎ 943 37 15 45 · [sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus)

Antolatzailea

ARGIAREN Adiskideak  
Usurbilgo Taldea



R.P.S. 175/15 I.L.G.

gama altuko  
**2 mō betaurreko**  
progresibo

**197€**

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.



Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
**LASARTE**

**MULTIOPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan